


BIZENTE BATIZEKIN UNETXU BAT

Urte honi, 2007koari, ezin deusagu joaten itzi A. Batizen ondora hurreratu barik. Izan be, aurten betetzen dira ha jaio zaneke 100 urte. 1907ko abenduaren 23an jaio zan Gerrikaitzen (Munitibar). Horrek emon deusku hainbat gauzatxu batu eta *Karmel* aldizkariaren orrietan, haren omenaldi antzera, agertzeko abagunea. Lore-sorta bat handik eta hemendik politenak bilduz egiten danez jardun dogu haren bizitzaren laburpen xume hau moldatzean. Igaro dan denboraren bazterrean ahazturik ez dogu itzi nahi izan. Aldizkari honen irakurleak dira lekuko hainbat pertsonaia eta idazle, batzuetan ezezagunak, atera ditugula ahaztearen zulo ilunetik argitara. Oraingoan A. Batizen ondora etorri gara.

Jaiotzez gerrikaiztarra, Oiz mendi inguruko haizeak moldatuko eban Bizente umearen bizitza. Geroago agertuko dogunez, hainbat izen eta izenorde erabili zituan, baina izen-abizeenez osorik holan agertzen da: Bizente Batiz Bilbao. Gurasoak Pedro Ignazio eta Felipa. Aita Bizkaiko Aldundiaren bidezain sareko eskualdeko burua zan eta, horregaitik-edo, Batiztarrak behin eta barriro herriz edo bizilekuz aldatu beharra izan eben. Gerrikaiztik Aulestira eta hemendik Xemeinera. Xemein jarri dot eta ez Markina, Markina eta Xemein sasoi haretan bat egin barik egozalako. Umetan mendi osterik mendi oste, kuika



olgetan ibili zala dirudi: Oizpetik alde egin eta Urregaraipen agertu; hemendik be iheska joan eta Zapolapean, Landaburu baserrian, kuku egin...

Orduko ohiturari jarraituz, jaio eta biharamunean (1907-12-24) bateatu eben Gerrikaizko parrokian. Aulestin hartu eban Sendotzako Sakramentua 1914ko urrian eta Xemeinen egin eban Lehenengo Jaunartzea 1915eko apirilean. Aulestin hasi zan eskolara, baina ez eban han luzaro jarraituko, 1915erako Xemeinen dago-eta. Arretxinagako eskolan jarraitu eban ikasten, Alesbesko (Nafarroa) karmeldarren ikastetxean sartu zan arte. Bera izan zan Batiztarren artean karmeldar bokazioari ekin eutsan lehenengoa. Migel Angelek, Ordenako Jenerala izango zanak, jarraituko eutsan eta geroago arreba Juanita be Karmeldar Misiolarien Kongregazioan sartuko zan.

Larreako nobizio-etxean sartu zan, 1923ko urriaren 12an abitua hartuz. Karmeldarren artean ohitura zanez, izen-deitura barriak izango zituan aurrerantzean: Nikolas Jesusena. Nobizio-urtea amaitu ostean, profesa egin eban 1924ko urriaren 13an.

Markinan bete eban hurrengo urtea, profesa egin barriak filosofiako ikasketen aurretik egin ohi ebena. Gasteizen filosofiako urte bi egin ostean Kolonbiara bidali eben nagusiak. Beharbada, hango klima osasunerako mesedegarri izango ebalakoan. Leivako karmeldarren komentuan osotu zituan falta jakozan ikasketak eta abadetzako sakramentua hartu eban Leivan bertan Paolo Giobbe Nuntzio Apostolikoaren eskutik.

Bere lehenengo komentua, abadetza hartu ondoren, Medellingo izango eban. Berak autortu eban, oraindino ikasle zala, Frontinoko misiorantz begira jarri zala, baina atzerantz egin ebal harako osasun onik ez ebalakoan.

Aurrez be hankako minez egona zan eta 1935eko udabarran gatx horrek jo eban barriro. Horregaitik Euskal Herrira bihurtu zan apirilaren 14an. Lehenengo Donostiara bidali eben *La Obra Máxima* misio-aldizkariaren idazkaritzara; geroago, Altzon egotalditxu bat egin ostean, 1936an *Karmengo Argia* (oraingo *Karmel* honen aurrekoa) aldizkarian lan egiteko Zornotzako Ikastetxera bidali eben. Gerra piztu zan, eta berari zegokion txandakoekin batera deitua izanik eta ez boluntario legez, Errepublikako armadaren kapilau sartu zan. Gerra zibila amaitzean preso hartu eben beste kapilau batzuekin batera. Gerra-auzitegian bizi guztiko kondena emon eutsien lehenengo eta gero 16 urtera jaitsi kartzelaldia.

Karmel aldizkari honetan Jose Sotero Urionaguenaren (Aita Rafael) biografia eta bere eskuz idatziriko gerrateko dokumentua argitaratu genduanean, hau esaten zan haregaz batera kartzelatuak izan ziran karmeldarrei buruz:

“Abuztuaren 2an sinatu zuen epaia Tribunalak: Heriotza-zigorra A. Leonentzat; 16 urteko kartzela A. Bautista, A. Lino, A.



A. Batiz ospakizun baten (Markinako Ereserkiaren estreinaldia).

Rafael eta A. Nikolasentzat (Bizente Batiz); 12 urte eta egun bat A. Sebastianentzat; 10 urteko kartzela A. Anjelentzat; eta 8 urtekoa A. Jose Domingo eta A. Luzioentzat. Bestalde, A. Santi 1937.09.09an agertu zen gerrako epaitegian eta 30 urteko betiko kartzelaz zigortu zuten”.

Kondena arintzea eta kartzelaz kanpo bete beharreko zigorra dala-eta hau esaten zan idazki horretan:

“1940.01.26ko BOEn argitaratutako Presidentziaren aginduz eta ondorengo xehapenetan zehazturik, preso haien errugabetasuna bermatzen zuten pertsona garrantzitsuen adierazpenak bilduz, sei urte eta egun batera jaitsi zieten espetxealdia eta erdia bete zutenez gero, beste erdia atzerrian, hau da, Bizkaia eta Gipuzkoatik kanpo, egindako lan pastoralarekin kitatu ahal



Markinako Ereserkiaren egileak: A. Nikolas eta A. Jose Domingo, senitarteko eta berri-agintariek

izateko aukera eman zieten. Horrela, A. Bautista Korellara (Nafarroa) bidali zuten, A. Luzio Nafarroako Alesbesera, A. Santi, A. Lino eta A. Rafael Santanderko Hoz de Aneroko Basamortura, A. Anjel, A. Nikolas [Bizente Batiz] eta A. Sebastian Soto-Iruzera, hau ere Santanderren eta A. José Domingo Santander hiriburuko komentura”.

Ameriketan misiolari

940an kartzelatik urten ostean, goian esan dogunez, Santanderko Soto-Iruzen bizi izan zan. Preso egondakoei, kartzelako egotaldia laburtu bai, baina kanpoan bete eragiten eutsen falta zana eta Bizkaitik eta Gipuzkoatik aldendurik, Santanderko, Errioxako edo Nafarroako komenturen baten bizi beharra izaten eben. Geroago, Aita Batizek bere gaztetako Amerika eban bihotzean eta, harantz abiatu zan itsasoz; oraingoan Peru izan-

go eban jomuga. 1944ko zemendian Perun dago, Arekipako Santa Marta komentuan. 1945eko zemendian Trujillora aldatu-ko da, eta 1948-1949ko urteetan El Cercadon bizi izan zan. Azken urte horretako hiru hilabete Panaman igaro zituan sudurreko mina zala eta medikuaren tratamendua jarraitzen. Kolonbiara bihurtu eta Palmirako komentukoa izan zan 1949tik 1952ra arte eta urte honetan Medellinera bidali eben.

Karmeldarren ardurapean jarri eben Tumaco-ko misioa. Luis Irizar prefektu apostolikoak 1954ko ekainaren 28an egin eban sarrera ospetsua. Hormaiztegiko semea zan Luis Irizar karmeldarra. Honeek izan zituan lagun misioan: Jaime Goiria, Wenceslao Ibarmia, Aszensio Zubizarreta, eta, idazkari kantziler karguan gure Bizente Batiz. Tumaco-n San Andres-ko eliza katedralean geratuko da Luis Irizar prefektu apostolikoagaz. A. Batizek idazkari, administrari eta beste zeregin batzuk bete zituan han. Sarri entzun dogu Irizar monsinoreak konfiantza osoa ebalatzen A. Batizengan, batez be bizipoza inguruan zabal-tzen ebalako, hau da, Prefektu Apostolikoak zituan arazo serioen artean, hango txirotasuna eta abar kontuan izanik, alde umorezkoa eta ia komikoa jartzen ekialako... Urte bi egin zituan han, A. Luis Irizarren ondoan. Beste urte bi misiolari El Charco-n, eta urte bi gehiago Barbacoas-ko egoitzan.

1956 eta 1957ko urteetan hainbat hilabete igaro zituan Medellinen eta Bogotan. Aita Severino Agirrebeitiak, Urabako Prefektu Apostoliko ohiak deitu eutsan bere ondora. *Historia de la Iglesia en Urabá y Darién* obra handia idazten ziharduan eta, antza denez, A. Batizen laguntza nahi eban. Aita Severinok beti maite izan ebalatzen autortuko dau berak. 1960tik 1964ra bi-tartean Palmirako komentukoa izan zan, eta 1964tik 1969ra bi-tartean Panamakoa.

Euskal Herrira

Bigarren etapa honetan 25 urte egin zituan Amerika aldean. 1969ko uztaillean Euskal Herrira bihurtu zan eta Eibarko ko-



Misioko argazkia (atzealdean Aita Ibarmia, Probintziala, eta Aita Zirilo).

mentukoa izan zan 1970etik 1972ra arte. 1972an Markina-Xemeingo komentura bidali eben. Lau urte, 1976ra arte, bizi izan zan hemen. Ustez, zoriontsu. Izan be, komunidade euskaldunean eta euskal giroan pozik bizi zan. Bera jaiotzez gerrikaiztarra izan arren, umetan hemen bizi izan zan eta hemen zituan txikitako lagunak. Bai, sustraiak hemen zituan eta oroimen harrigarrikoa izanik, umetako gorabeherak eta hemengo gauzak oroimenean ondo gordeta zituan. Euskaltzale eta euskal idazle zan aldetik be nahiko garrantzitsua izan zan Markina-Xemeingo egotaldia. Julen Urkizaren bibliografian agertzen danez, euskal lanetan emonkorra izan zan. Beharbada, ez dira haren lanik onenak Markina-Xemeinen egoala idatzirikoak. Ipuin batzuk eta bertsoak idatzi zituan Artibai inguruan. Hemen bizi zala idatzi eta argitaratu eban *Gurutz-Bidea* izeneko liburuxka polita, bertso sentiberaz idatzia eta deboziora eragiten daben marrazki egokiz apaindua.

Zapolapean bizi izandako aldiaren emaitza agerikoa zan, baina behin baino sarriago entzun neutsan, gaztetan Ameriketan izandakoak gero be harako tiratxua izaten dabela; dei misteriotsu baten antzekoa. Misiolari-ametsa edo abentura-go-



sea...? Kontua da, barriro be itsasoa zeharkatzeko gogoia piztu jakola. 1976ko abendutik 1979ko martira arte Panaman izan zan, baina oraingoan ez hiriburuan, Soná-ko misio-egoitzan baino. Handik, oster, herrimenez eta hemengoaz ametsetan balebil legez idatzi zituan hainbat eskutitz. Izan be, gure Aita Nikolas (Bizente Batiz) ameslaria zan. Bihotzaren eraginez, irudimena hara eta hona zebilkion, sosegu hartu ezinik, urduri: han egoanean, hemengoia amets eta hemen egoanean, itsasoz handikoaren irrikaz. Bere aitak esaten ei eban, Bizente ez dagoan lekuan egoten dala pozik...

Barriro gure artera

1979ko martian Euskal Herrira bihurtu zan behin betiko. Donostiako Karmeldarren komentua izan eban bere azken egoitza. Komunitate horretako kronikariak idatzirikoa esanguratsua da. Holan dino idazkiaren atal baten:

“Y en esta etapa final, después de su azarosa singladura durante 52 años cruzando mares y prestando servicio en múltiples puestos, llega a la arribada final. Y se asienta en San Sebastián, y con entera disponibilidad. Tiene 72 años”.

Pozik eta ondo betetzen zituan komentuetan izan ohi diran zeregin txiki ugariak. Esaterako, Eukaristia ospakizunerako ohar eta lagungarriak berak prestatzen zituan. Hitzaldiak edo homiliak egoki egiten zituan, euskeraz nahiz gaztelaniaz. Atezain ofizioan be, nagusiak eskatu ezker, gogoz jarduten eban, jendeari harrera ona eginez eta eskariak eta oharrak zehatz jasoz.

Euskal idazle eta olerkaria

Beharbada, gerra aurrean aurkitzen ditugu haren lumaren emaitzarik onenak, baina gerra ostean be A. Batizen olerkari-iturria ez zan agortu. Nahita jarri dot *olerkari-iturria*. Izan be, prosalari baino gehiago olerkari izan genduan. Ipuinak idatzeko be baeukan grazia, baina gehienbat olerkiaren baratzea zan

landu eban. Markinako komentuan bizi zanean bertso idatzietara jo eban, baina hau, gure artean esaten danez, “per modum recreationis” eta goranzko helburu handi barik egin ohi eban, komentu barruko jaiak eta bazkalondoak alaitzeko... Dana dala, bertso jarrietarako erraztasun harrigarria eukan. Ikustekoa izaten zan halako egunetan! Makinaz kopiak albait txukunen egin eta guztiei banatzen eutsezan abituaren kolkotik aterata; gero, erdira urten eta astiro erreztatzen zituan. Lehenengo bertsoan inspirazioari deika, iluntasunean bidea urratu ezinik balebil legez. Apurka-apurka gorantz egin eta omendua zorion-eztitan edo zeruan ezartzean amaituko eban bere errimazko hegaldia... Hona hasiera eta amaierako bertsoen adibide bana:

*Bertso batzuek egin nairikan
Emengo Nagusiari,
Ibillia naiz gora ta beera
Ordu batzuetan larri,
Goi-argitxoak iges baitio
Orain nere buruari,
Neurtitz motel bat ezin izan dut
Lumatxoraño ekarri.*

*ZORIONAK, ba, gaurko egunez,
AITA EULALI maitea,
Anai artean jaiotegun au
Bezazu pozez betea,
Eta Jainkoak bemaizu sarri
Osasunez ospatzea,
Baita bizitza au aitzerakoan
Betiko zeruratzea.*

Olerkietara bihurtuz, ez dira barrunbe ilun eta sakonekoak. Lau-lauak, jostariak, sentimenduzkoak, ondo josiak eta esanahia bistan dabenak dira. Ametsak, bihotzean pizten diran



Tumaco-n Aita Batiz, eskubian Juan Luis.

nahiak, irrikak kantatu ohi zituan batez be. Txoriak, umeak, izadia, aberria, askatasuna... Eta, jakina, erlijioa be haren olerki-eraikinaren zutabe sendoetarikoa zan. Bihotzaren eraginpean onduriko olerkiak ziran, baina ez beti gozoak edo samurrak. Olerkietan alde gozo eta samurra kantatzera baino erostaka edo hileta jotzen jarduteko joera agertzen eban gehiago. Sentimendua agertu beharrez, minbera antzera erakusten eban bihotzondoa. Kartzelako egotaldiak be itziko eutsan erresumin pixka bat. Bere bizitzan, ostera, oso umoretsua eta xelebrea zan. Irakurleak *Karmel* honen azken orrietan aurkituko ditu



A. Batiz, Perun.

Xalokinen olerkiak, baina ahapaldi batzuk ekarriko ditut hona, haren joera eta estiloaren ezaugarri batzuk erakustearren. Esaterako, hizkuntza eta txorien kanta konparatzen dituana; txoriak kaiolan sartzen dituen bihotz bakoien aurka deiadar egiten dau. Hona ataltxu batzuk:

*Nola dira munduan
batzuk ain gaiztoak?
Zer dala-ta laga ez
aske txoritxoak,*

*orretarako egin
bai-ditu Jainkoak?
Zertako sartu bear
kaiolan gaixoak...?*

*Nai-ta jaki goxoak
ipiñi ugari
baitegian daukazun
txori politari,
ez zaizu ariko, ez,
pozaren kantari;
askatasun-eskale
dago abeslari.*

*Berton auzoko batek
kaiola barnean
bospasei txori dauzka
negar samiñean...
Baiña berak uste du,
txioak aitzean,
pozez diardutela
beren ekiñean.
(...)*

Beste olerki bi aitatu nahi ditut, haren estiloa egoki adierazten dabelako. Batak *Aingeru artera* dau izenburua. Polita da, gozoa, samurra; hau bai!, nahiz eta bere-berea dauan joeraren seinale, bihotzeko kexu motelen bat agertu... Umeen antologia liburuetan sartzeko modukoa, nire ustez. Bestean *Beltzak argitzera* irakurtzen dogu izenburuan. Tumaco-ko misioan bertako baltzak Ebanjelioaz argitu nahirik ziharduenekoa. Erregu antzera Jainkoari zuzenduak dira ahapaldiak. Kezka, ezina, ardura... adierazten ditu. Hona bataren eta bestearen adibide hautatuak:

Aingeruen artera

*Ama... Begira beste aurtxoak
Zelaian iostari...
Ni, berriz, emen, egon ta egon
Iostallu kontari...*

*Zergatik, ama, ez naramazu
Araxe zelaira?
Iostari aiek, nexka ta mutil,
Lagunak baitira?*

*Begira Pello-k nola iotzen dun
Pillota txuria...
Eta Loentxo-k orain iantzi dun
Txapeltxo gorria...*

*Ara, Iosetxo nola dabillen
Gurditxo gañean...
Baita Potolo arinka atzetik,
Arrapa naiean...*

*Axun ta Miren soka dantzari,
Beste bi kantatzen...!
Oro poz, alai, beti iyutika...
Eta ni...? ...maxkaltzen...!*

.....

*Lo, lo dagidan pixka batean,
Iolasetan ames...
Begiak itxi ere ezin, ama,
Oñaze ta miñez...!*

.....

Ama...! Nolakoa ote aingeruen

*Zelaia... Pollita...?
An bai pozik iostatuko naizela...
Egoak iantzita...*

Beltzak argitzera... (otoi-antzo)

*Aspaldi nabil, Iauna, bide gogorrez...
Batzutan bateltxoan, askotan oñez...
Noizbeinka egalari, txorien antzez...
Egi bidera beltzak eraman naiez.*

*Aberritik urruti... Mixiolari...!
Olan, basoak zehar beti ibiltari...!
Poz banakakin naste oñaze ugari...
Ori dut geienetan lanaren sari!*

*Zerbait eginen badut, ibilli bear
Beltz auek bizi diren baserri zear...
Baña nik iardun arren oiu ta dear,
Gor, gor diraute beltzak... Nik ordun negar...!*

*Iainko...! Beltz-erri ontan Zuk iarri nauzu...
Bertoko aur ta zaarrak zure dituzu.
Guziak Zuganatzen lagundu idazu,
Auentzat ere tokia or baituzu...!*

*Aantzi al zera, Iaun on, gurutz gainean,
“Egarri naiz” oiuka ari ziñanean,
nola xuri ta beltzak zeru barnean
sartzea nai zendula esan zenduan...?*

.....


*Atozkit, ba, Iesus, neri laguntzera...
Ietxi zaite biotz aul au indartzera...*

*Iauzi Zu, Iainko ona, nere batelera...
Goazen oian-zear beltxak argitzera...!*

Olerkiak baino gehiago kantuak izan arren, sail berean sartzekoak izan leitekez ereserki biren letrak: bata, Ziortza-Bolibarko herriaren eskariz, Simon Bolivarri eginiko ereser-



Igeltsero lanetan.



kiaren euskerazko letra da; eta bestea, Markinari eginiko ereserkiaren letra. Simon Bolivarri eginiko ereserkia hiru karmeldarren artean burutu zan: Musika Frantzisko Ugarte-txearena (A. Jose Domingorena) da; gaztelaniazko letra, Luis Martínez de Maturana (A. Bernardino) arabarrarena eta euskerazkoa, gure Bizente Batizena. 1927ko uztailaren 24an argitaratu zan. Markinari eginiko ereserkia be, Aita Jose Domingok eta A. Batizek elkarlanean egin eben, batak musika eta besteak letra.

Literaturako lana izan ez arren, ezin alde batera itzi A. Bizente Batizek bere bizitzako azken urteetan egin eban lanik ederrenetarikoa: *KARMELDAR TERESIARREN ORDENAKO ORDUEN LITURGIA*. Ez da oso-osorik berea, Lino Akesolorenak dira irakurgaiak eta. Liburu horren osagarri legezt beste liburu-ki bat atera zan, ez moldiztegian egina, ziklostilean baino. Liturgiako liburuetan ez da agertzen egileei buruzko xehetasunik. Ziklostilean ateratako liburukian, oster, hainbat zertzela-da jarri ziran. Hona hango ataltxu batzuk:

“Urte asko dira euskaldun kristauok *Orduen Liturgia* (1985) euskaraz dugula. Hala ere Karmeldar Teresiarren Ordenako santu eta dohatsuena ez genuen euskaraz orain arte. Gogo bizia nabari zen, *Orduen Liturgia* orokorra bezala, gure Ordenakoa ere euskaraz errezatu ahal izateko. Hutsune hau betetzera dator *Karmengo Ordenako Orduen Liturgia* izeneko argitalpena eta haren osagarritzat atera den liburuki hau”.

Lerro batzuk beherago, beste ataltxu hau dator:

“Liburu honek bere historiartxo du: Aita Nikolas Batiz eta Aita Lino Akesoloren lana izan zen hasieran. Gero ere, beste batzuek haien lana osatzen orduak eta orduak eman dituzten arren, haiena izango da batez ere. Aita Batizek hil baino lehen bukatutzat eman zuen Aita Probintzialak bere gain utzitako lana. Geroago Aita Lino Akesolok irakurgaiak berriztatu ez eze, goitik behera berriak egin zituen bere gogara. (...).



Aita Batizek, hil baino astebete lehenago edo, Aita Eustakio Larrañagari esan omen zion testu haiek ateratzea nahiko lukeela... Laster hil behar zuen fraide on baten azken borondatea edo zen, Aita Eustakiok bene-benetan hartu zuena. Horregatik, Probintzialaren eskuetan ziren testuak fotokopiatu ondoren, eroapen handiz, ordu asko hartan emanik, lortu zuen testurik gehiena, ia guztia, ulertzea eta ordenagailuz idaztea. (...).

Baina *Karmengo Ordenako Orduen Liturgia* liburua osatzeko, eskuetan duzun liburuki hau gehitu zaio, multikopiaz egina. Horrela, gure Aita Nikolas eta Aita Lino maiteen testu ederrak hor izango ditugu karmeldar euskaldunon gozame-nerako”.

Azken gauzatxuak

Ez neuke amaitu nahi biografia labur hau gogoan ditudan hainbat zertzelada aitatu barik.

Gorputzez txikia zan, baina zabala eta pixka bat potoloa; horregaitik, norbaitek, izenordetzat olerkietan *Oizko Argala* erabilela jakinik, errimazko esaldi hau asmatu eutsan: “*Oizko Argala* darabil izena / baina izatez potolo gizona”. Izenordeak erabiltzea gerra aurrean eta gerra ostean ohikoa zan. Julen Urkizaren bibliografiatzko lanean datoz A. Batizek erabiltzen zituanak, baina haren izen eta izenordeei buruz zer edo zer gehiago esan nahi neuke. Izenburuan bertan zer izen jarri zailantza izan dot: Bizente Batiz ala Nikolas Batiz. Bere izen-abizenez Bizente Batiz Bilbao zan, hasieran esan dodanez; Nikolas Jesusena izen-abizen erlijiosoak ziran... Olerkietan, gorago aitatu dodan *Oizko Argala* izenordeaz gainera, *Barbin* eta *Xalokin* erabiltzen zituan sarri. *Barbinek* Batiz'tar Bingen esan nahi dau; *Xalokin*, barriz, Nikolax da atzekoz aurrera idatzita.

Buruz gizon oso argia zan; oroimen harrigarria eban, batez be zenbakiatarako. Efemeride eta hainbat jazoeratako datak, telefono-zenbakiak... zerrenda osoak ekizan buruz. Kolonbiako komentueta telefono-izenen libururik ez ei eban behar izaten...

Umetan begirune eta mirespena irabazi zituan, batez be bera baino gazteagoen artean. Ume mordo batzen jakon inguruan, Bizentek zer esango zain. Batiz mutikoak irudimenean iraziriko ipuinak kontatzen ei eutsezan gozo-gozo. Sarri entzun neutsan A. Juantxuri (Juan Iturregi) eztitan eta adurra dariela egoten zirala txikitxuak. Bera legez etxetik urrun egozanak, batez be, Bizente Batiz mutiko hazitxuagoaren berotasuna sentitzen ebela Alesbesko urte hareetan...

Ez eban osasun on-onik izan. Gaztetarik hasi zan kexatzen hankako mina zala-eta. Gatx hori, batzuetan minberago bes-tetan leunago, beti izan ebala aldean esan geinke. Azkeneko



20 urteetan gorri nabarmena eban. Ez eban horregaitik umorea galtzen ez eta ingurukoekin hartu-emona eteten be. Konpontzen zan zelan edo halan... Kirolak interes handiz jarraitzen zituan.

Umorea aitatu dogu. Halako bristada batzuk baino ez dira heldu guganaino. Tumaco-ko misioan, Luis Irizar prefektu apostolikoak zirikatutik, egunero izaten ei eben komedia politen bat hango misiolariak. Markina-Xemeingo komentuan ego-



ala berari entzuniko hau dot gogoan. Carmona-ko kartzelatik urten barri, Bilboko Atxuri aldera heldu zan eta han elizan sartu. Domingotarren eliza aitatzen ebala uste dot... Aitorlekura hurreratu eta hasi da pekatuak konfesatzen. Lehenengo bertatik erlijiosoa zala esaten deutsa aitor-entzuleari. Erderaz, jakina, hau erdelduna zan-eta.

– ¿De qué Orden religiosa? –aitor-entzuleak.

– Eso a usted no le importa –A. Batizek.

– Sí me importa y si no me dice, no le absuelvo –besteak zorrotz.

– ¡No se ponga así! Soy Pasionista...

Gure karmeldarrak hau pentsatu eban bere kolkorako: “Honezkero sufrimendu edo pasino gogorak igarota nator eta ez dago txarto *Pasionista* nazala esatea...!”

Debozio handikoa zan. Azken urteetan, Donostian bizi zala, ordu luzeak igarotzen zituan elizako koruan mezak entzuten. Bera goiz jaiki ohi zan; sakristia ondoko kapera Eukaristia ospatu eta korura joaten zan, Karmengo elizan emoten ziran mezak entzuteko. Errosario osoa erreztatzen eban, hamabost misteriokoa. Azkenaldian, debozio hau erraztearren, grabazio batez baliatzen zan.

Honaino heldu bazara, irakurle, A. Bizente Batizen bizitzaz, haren olerki-lanaz, umore eta izaeraz pixka bat gehiago jakingo dozu. Jaiotzako mendeurrena betetzen danean, on deizula haren ondoan igaro dozun unetxuak.

Luis Baraiazarra Txertudi